

BEASAINGO UDALA ETA AITTU! EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, BEASAINEN EUSKAREN ERABILERA SUSPERTZEKO.

Beasainen, 2025eko martxoan

BILDURIK

Alde batetik, **Leire Artola Ugalde** andrea BEASAINGO UDALAREN (IFK, P2002100B), ordezkari gisa, Alkatea den heinean, Korporazio osatzeko bileran 2023-06-17an kargu hori betetzeko izendatua izan zelako. Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio.

Beste aldetik, AITTU! EUSKARA ELKARTEA, G75230607 IFK zenbakiduna eta egoitza Beasainen duena, Martina Maiz kaleko 3 zenbakian, egintza honetan **Patxi Saez Belokik** ordezkatuta, adinez nagusia dena 15969078V NA zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Martina Maiz kaleko 3 zenbakian duena .

AURREKARIAK

I.- Udalaren eskumen propioen artean ondorengoak daude:

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak ondorengo artikuluetan xedatutakoa:

7. artikulua. Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.

- 7.2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena
- 7.5.– Toki-erakundeei euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte;

II.- Aittu! Euskara Elkartearen 2019/10/15eko estatutuetako 2. artikuluan jasota dagoen bezala elkartearen helburuak honakoak dira:

Aittu Euskara Elkartearen helburua Beasainen euskal giroa berpiztea, kultur elkarte eta euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera sendotzea da.

Helburu horretara heltzeko, Beasainen antolatutako ekintza guztietan eta batez ere, eguneroko bizitzan eragina duten zerbitzu, esparru eta jardueretan euskararen presentzia ziurtatu eta sendotzen saiatuko da, proposamenak eginez, laguntza eskainiz eta gabeziak estaliz.

III.- Bi aldeek hitzarmena burutzeko interesa dute euskararen erabilera normalizatzeko elkarlana egiteko.

IV.- Hori dela eta, Aittu! Euskara Elkartek memoria bat aurkeztu du proposatzen dituzten jarduerarekin batera eta horien inguruko aurrekontuarekin.

V.- Uka ezina da diruz lagundu nahi dena udalaren eskumen eremuaren alorrean dagoela, eskumenaren eta gastuaren arteko lotura hertsia dagoela eta interes publikoa duen helburu bat sustatzearekin bat datorrela.

Arrazoi horregatik eta kontuan izanda Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua aurreikusten dituen xehetasunak betetzen direla, 2025.urteko udal aurrekontuan 0230.481.335.30.01 partida izenduna kontsignatu da, 60.000,00 €koa, honako proiektu hauek diruz laguntzeko:

1. Beasaingo Euskalgintza egituratu.

1.a. Aittu! Euskara Elkarateak euskararen herrigintza sustatzeko helburuarekin Beasaingo herritarren arteko elkarbizitza saretu eta trinkotuko duten gizarte-egitura eta harreman-sareak eraiki eta berrikotuko ditu euskaratik. Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo euskalgintza egituratzeko eta hizkuntza planifikazioa hezurmamitzeko elkarlanerako adostasunak bilatuko ditu Beasaingo gizarte esparru guztietako eragileekin eta saiaturiko da banan banako engaiamenduak lotzen eta, hain zuzen ere, horietarako guztietarako, Beasaingo gizarte arlo guztietako eragileekin Euskalgintzaren Mahaia antolatuko du eta baita arloko mahaia ere. 2025ean jarraipena emango die hezkuntza eta merkataritza arloko mahaiei eta Beasaingo gizarte erakundeen arloko mahaia abiaraziko du.

1.b. Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo Euskalgintza mahaiaekin batera 2025eko Euskaraldia eta horren baitan Hikaldia eta Irrialdia antolatzeko ardura hartuko du.

Hikaldia : hikako erabilera bultzatzeko saiakera egingo da Euskaraldiarekin batera. Horretarako AppaHi! Aplikazioa, Beasainen erabili izan den hika moldean prestatuko du Aittu! Euskara Elkarateak Euskaraldia Hikan parte hartuko duten herritarrei eskaintzeko. Irrialdia: Euskara alderdi emozionalarekin uztartzeko ekinaldia, bereziki umorearekin elkarlotuta.

Horretarako hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa dago: bakarriketak, antzerkiak, pailazoak, magia saioak,...

Beasaingo Euskalgintza Mahaia bidez Beasaingo Euskaraldiaren herri batzordea antolatu eta aktibatuko du modu iraunkorrean eta baita Euskaraldiaren batzorde eragilea ere (Aittugune batzordea).

1.c. Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo Herripedia egitasmoa abiaraziko du Beasaingo gizarte bizitzaren arlo guztietako eragileekin elkarlanean. 2025. urtean Herripedia egitasmoari jarraipena emango zaio: egitasmoaren garapenerako osatutako lantaldeei jarraipena emango zaie eta 2025ean egitasmoa egikaritzeko epeak, egin beharreko lanak eta behar diren baliabideak zehaztuko dira eta planifikatutakoa egikarituko da.

1.d. JakiZU Beasain (Beasain ezagutzeko jokia) Herripedia proiektuarekin lotura duena egitasmoa da, Trivial baten antzeko mahai jokia, herriaren arlo desberdinetako galdera-erantzun eta azalpenak izango dituen. Baina Kultura arloan herria baino esparru zabalagoa jasoko duena. Formatu digitalean ere aurkeztu nahi da.

2. Beasaingo hezkuntza arloko Euskalgintza Mahaia

2.a. Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo hezkuntza arloko eragileekin elkarlanean Euskaraldia, Hikaldia eta Irrialdia garatuko ditu. Horretarako:

- 2025eko Euskaraldirako ikastetxeekin batera guraso euskaldunei hikaren transmisioaren garrantziaz jabetzeko kanpaina egitea eta euren seme-alabekin hizkera hori erabiltzeko saiakerak egingo ditu.
- AppaHi! Aplikazioaren zabalkundea.

2.b. Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Eguna ere Herriko ikastetxeekin elkarlanean antolatuko du Aittu! Euskara Elkarateak.

- Gartxiren etorrera.

Beasaingo Herripedia egitasmoa garatuko du Beasaingo hezkuntza eragileekin elkarlanean. Beasaingo ikastetxeen curriculum lantzeko artikulua identifikatu eta artikulua entziklopedikoen lanketarako lehentasunak finkatuko dira eta artikulua idazteari ekingo zaio.

3. Beasaingo Herripedia egitasmoa

2025. urtean Herripedia egitasmoari jarraipena emango zaio: egitasmoaren garapenerako osatutako lantaldeei jarraipena emango zaie eta 2025ean egitasmoa egikaritzeko epeak, egin beharreko lanak eta behar diren baliabideak zehaztuko dira eta planifikatutakoa egikarituko da.

3.a. JakiZUbeasain (Beasain ezagutzeko jolasa)

4. Beasaingo arlo sozioekonomikoaren Euskalgintza Mahaia

4.a. Aittu! Euskara Elkarateak Euskaraldian Aittuguneak sortu zituzten Beasaingo lan-erakundeei euskararen sustapenean elkarlanean aritzeko proposamena helaraziko die Euskaraldian abiarazitako Aittuguneak iraunkortzeko.

4.b. Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo espazio publikoaren erabilera egiten duten tabernari eta ostalariei terrazetan euskararen presentzia areagotzea sustatuko du Beasaingo Udalarekin elkarlanean.

5. Gizarte erakundeen arloko Euskalgintza Mahaia

a. 2025ean Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo Gizarte-erakundeen Euskalgintza Mahaia abiaraziko du Herripedia egitasmoari ekiteko helburu nagusiarekin.

6. Beasaingo gazteengan eragin

I.a. Aittu! Euskara Elkarateak (Aittugazte batzordearen bidez) Beasaingo gazteen arteko elkarbizitza euskaratik eraikitzeko AittuGazte dinamikari jarraipena emango dio eta dinamika horretan murgiltzen diren gazteen ekimenei bultzada eta babesa emango die.

- . Herriko jaietan
- . Mendi irteerak
- . Euskaraldirako antolatutako gazte ekimenak

I.b. Aittu! Euskara Elkarateak Beasaingo gazteak AittuGazte dinamikara erakartzeko estrategiak garatuko ditu eta parte-hartzea sustatuko du.

I.c. Aittu! Euskara Elkarateak gazteen arteko hizkuntzaren aktibazioa bultzatzeko Euskararen Nazioarteko Egunean aisialdiko dinamika informalaren antolaketa egingo du Beasaingo AittuGazte dinamikan dabilen gazteen bitartez.

- . Gazte festa

7. Euskararen Nazioarteko Eguna.

a. Aittu! Euskara Elkarateak Euskararen Nazioarteko Egunaren antolaketan parte hartuko du, eta horretarako giza baliabideak eta baliabide intelektualak jarriko ditu eta lanaren koordinazioa egingo du.

8. Aittu! Euskara Elkaratea egituratu

a.a. Aittu! Euskara Elkarateak hitzarmen hau aurrera eramateko lan-batzordeak sortu eta abian jarriko ditu.

- . Bazkidetza kanpaina

a.b. Aittu! Euskara Elkarteak bazkidetza eta auzolana sustatuko du orain arte Euskaraldian parte hartu duten 4.000 beasaindarren artean.

a.c.Aittu! Euskara Elkarteak bere jarduerarako beharrezkoak dituen baliabide materialak eta digitalak lortzeko inbertsioak egingo ditu: informatika, telefonoa, fungibleak...

b. Goierriko Euskalgintza egituratu

b.a. Aittu! Euskara Elkarteak Goierriko euskara elkarteekin eta Tauparekin elkarlanerako plangintza bat zehaztu eta egikarituko du. Batetik jarraipena emango die 2021ean abiarazitako mintzalagun egitasmoaren barnean elkarlanean hasitako Mintza-Tertulia saioei, kantu afariei eta irteerei. Eta, bestetik, elkarlanerako bide berriak jorratuko ditu Goierriko euskara elkarteekin elkarlanean.

Mintza-tertuliei dagokienez, ikasturtean 8 saio egingo dira eta 2025 urteko maiatzekoa berezia izango da. EUSKARALDIA ekitaldiaren egutegi barnean kokatuta, eta EUSKARALDIAren Herri Batzordearekin adostuta “Belarriprest” antzezlan izango da ikusgai eta mintzagai Usurbe antzokian, maiatzaren 15ean. Mintza-tertulia horretara Ordiziako eta Lazkaoko mintzalagunak gonbidaturik daude.

Ondorengo orrian daude jasota 2025eko Euskaraldiko egitarauko ekintzak eta Aittu! Euskara elkartearen eta Beasaingo Udalaren konpromisoak eta betebeharrak :

2025eko EUSKARALDIA

EKINTZA	DATA	ORDUA	TOKIA	SARRERA BAI/EZ	ALOKAIRUA BAI/EZ	ORDAINKETA UDALA/AITTU!	SOINUZTAPENA NORK
FUTBOLISTOK ZUHAITZ GURRUTXAGA	2025-05-09	20:30	USURBE ANTZOKIA	BAI 10€	BAI	Sarrerak + BEZa Aittuk	pantaila proiektorea bere ordenagailutik irudiak eta bideoak proiektatzeko. Bai eta soinu ekipoa, mikrofonoa konektatzeko.
BELARRIPREST Bakarrizketa Amaia Bono	2025-05-15	18:00	USURBE ANTZOKIA	EZ (doan) Batez ere euskaltegietako ikasleentzat	EZ Sarrerak aforoagatik	1166€ Udalak	
PORROTX ETA MARIMOTOTS	2025-05-16	18:00	PLAZA AZPIAN/GOIAN	EZ	EZ	1600€+BEZa Aittuk	Beharrak : entxufe normala Oholtza 10m X6m
*ZOPA antzeslana (hitanoa)	2025-05-21	19:00	KALEAN ERAUSKIN PLAZA/PLAZAPE	EZ	EZ	900€+(BEZa) Udalak	828,85€ Udalak
MAGIA POTEOA IMANOL ITUÑO	2025-05-22	19:30	KALEAN	EZ	EZ	600€ (BEZa) Aittuk	ekintzaren txarteltxo bat edo karteltxoren bat izatea zintzilik eramateko
ED3 Akustikoa (Ez dok hiru) PATXO TELLERIA MIKEL MARTINEZ	2025-05-23	20:30	USURBE ANTZOKIA	BAI	EZ	2450€+BEZa Udalak	



Beasaingo Udala

VI.- Horren ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote eta hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:

ESTIPULAZIOAK

Lehenik. Helburua: Hitzarmen honen xedea esku hartzen duten alderdien eskubideak eta betebeharrak arautzea da, Aittu! Euskara Elkarteari 60.000,00 €ko dirulaguntza emanez.

Bigarren. Aittu! Euskara Elkartearen betebeharrak:

1.- Diruz lagundutako jarduerak burutzea, hain zuzen ere:

- Beasaingo euskalgintza egituratu
- Beasaingo hezkuntza arloko Euskalgintza mahaia
- Beasaingo Herripedia egitasmoa
- Beasaingo arlo sozioekonomikoaren Euskalgintza mahaia
- Gizarte erakundeen arloko Euskalgintza mahaia
- Beasaingo gazteengan eragin
- Euskaren nazioarteko eguna
- Aittu! Euskara Elkartearen egituratu
- Goierriko euskalgintza egituratu

2.- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen Lege Orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

3.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

4.- Udal organo eskudunak edo udal kontuhartzaileak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

5.- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako diru laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.

6.- Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.

7.- Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, onuradunak aldeztu aurretik eskatuta Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

Aipamen hori egiterakoan ondorengoak kontuan izango dira:



Beasaingo Udala

- 1990eko martxoaren 8an Beasaingo Udalak Osoko Bilkuran onartu zuen udalerrian euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko Udal Ordenantza.
- 1/2023 **LEGEINTZAKO DEKRETUA**, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.

8.- Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

9.- Diruz lagundutako jardueretan gerta litezkeen kalte guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izatea.

Hirugarren. Beasaingo Udalaren betebeharrak:

Aittu! Euskara Elkartearen 2025eko proiektuak garatzen laguntzeko, Beasaingo Udalak dirulaguntza nominatibo gisa, 60.000,00 € ordainduko dio, jarraian adierazitako moduan:

- 1. ordainketa 48.000,00 eurokoa (dirulaguntzaren %80), hitzarmena sinatu ondoren, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, edozein ordainketa egin aurretik, azken agiriek indarra galtzen badu Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuetan kontsulta eginez.

Hala ere, onuradunak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

- 2. ordainketa 12.000,00 eurokoa (dirulaguntzaren %20), 2025eko urriaren 15ean, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Laugarren. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak.

Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, erreklarguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialeko gastuak.



Beasaingo Udala

d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.

e) Errentaren gaineko zergak.

Bosgarren. Gastuak justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentuak:
2026ko urtarrilaren 15erako izandako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, eta horretarako ondorengoak aurkeztu beharko dira:

- 1.- Burututako jardueren memoria. Baita ere adieraziko da diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa nola jakinarazi den.
- 2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiarekin:
 - a) Gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta kontzeptua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena, diruzainak sinatuta.
 - b) Fakturak, nominak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere.
2. Euskara eta berdintasun klausulak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.
3. Hitzartutako proiektuak eta jarduerak aurrera eramateko gainfinantziatorik ez dela egon ziurtatzen duen agiria, hitzarmenaren sinatzaileak sinatuta.

Seigarren. Beste laguntza batzuekin bateragarritasuna:

Diru laguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunak edo nazioarteko erakundetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta dirulaguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako dirulaguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain, funts propioak edo beste diru laguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

Zazpigarren. Hitzarmenaren iraupena:

Hitzarmen honen indarraldia, 2025-12-31artekoa izango da eta ezin izango da luzatu.

Zortzigarren. Jarraipen, zaintza eta kontrol mekanismoak:

Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua:

- Udal-erakundearen aldetik, Alkatea eta Kultura eta kultura eta euskara teknikaria.
- Aittu! Euskara Elkartearen aldetik, Patxi Saez Beloki, elkarteko lehendakaria.
-



Beasaingo Udala

Bederatzigarren. Alderdien arteko jakinarazpenak eta komunikazioak:

Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei bidali beharko zaizkie:

Udalaren aldetik: Ane Barandiaran Lizarralde, Kultura eta Euskara teknikaria.

Aittu! Euskara Elkartearen aldetik: Patxi Saez Beloki, lehendakaria.

Hamargarren. Onartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Dirulaguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi dirulaguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak.

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

Hamaikagarren. Hitzarmena bertan behera geratzea:

- 1- Epea amaitutakoan.
 - 2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean.
 - 3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean.
 - 4.- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.
- Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.
- Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.
- Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzaezina ezarrita.

Hamabigarren. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko



Beasaingo Udala

akordio bidez ebatziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean

BEASAINGO UDALA

Leire Artola Ugalde
Alkatea

AITTU! EUSKARA ELKARTEA

Patxi Saez Beloki
Lehendakaria



DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN AURREKONTUA
2025. URTEA

Gastuen aurrekontua	60.000,00
----------------------------	------------------

Gastu kontzeptua	Kopurua
Aittu! Euskara Elkartearen egituratu	3.500,00€
Topagunearen kuota	
Baliabide informatikoak	
Bulego gastuak	
Funtzionamendu gastuak	
Material teknikoa	
Komunikazioa	
Telefonia	
Beasaingo euskalgintza egituratu	10.000,00€
Euskaraldia	
Euskararen Nazioarteko Eguna	
Hikaldia (Appa HI!)	
Irrialdia	
Aittugazte	
Komunikazioa	
Material teknikoa	
Plazako horma-irudia	1.500,00€
Beasaingo Herripedia egitasmoa	45.000,00€
GASTUAK GUZTIRA	60.000,00€

Sarrera kontzeptua	Kopurua
Udalaren dirulaguntza	60.000,00€

